

**Jose Mari
Iriondo**

*Euskal
kulturaren
komunikatzaile*





Kazetaritza buruan,
euskara gogoan,
Gipuzkoa bihotzean!



Zorionak Jose Mari!

Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzaile:

Andoaingo Udala
Euskararen Normalkuntzarako
Lansaila
Goikoplaza, z/g
20.140 Andoain
Tel.: 943 300 830

Argitalpenaren arduradun:

Jon Unanue

**ekoizle:**

Erroitx, b.m.
Hedabide eta iragarbideak
Dr. Huizi kalea, 15-1. esk.
20.140 Andoain
Tel.: 943 300 732

Ekoizpenburu, erredaktore:

Jon Ander Ubeda

Laguntzaile:

Ainhua Arozena, Xabier Lasa

Diseinatzaile:

Maddi Trutxuelo

Argazkiak: Xabier Ubeda, Jose
Mari Iriondoren artxiboa.

Irarkola: Antza, S.L.
(Lasarte-Oria)

Lege-gordailua: SS-900-2008
700 aleko argitaraldia egin da
2008ko ekaina

Andoaingo Udalak XX. Rikardo
Arregi Kazetaritza Sariaren
Ohorezko Aipamenaren kariaz
bereziki egindako argitalpen
osagarria.

© Andoaingo Udala

Gutziz galarazita dago
argitaratzailearen baimen idatzirik
gabe argitalpen honen aldakirik
egitea edo hori berrargitaratzea
edozein bitartekoz baliaturik.

Esker ona:

Argitaratzaileak bere esker ona
adierazi nahi die argitalpen hau
osatzeke laguntza eman duten
erakunde eta lagun guztiei, bereziki,
Gipuzkoako Ahalduen Nagusiaren
Kabineteari, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailari eta Azpeitiko nahiz
Zarauzko Udalei.



Aurkibidea

XX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2007/08

Ohorezko Aipamena, azken erabakia.....	4
Kultura Sailburuaren adierazpena.....	5
Atarikoak.....	
Jose Mari Iriondori elkarrizketa.....	
Joxe Mari Otermin.....	3
Itziar Sagarazazu.....	3
Mikel Atxaga.....	3
Odile Krutzeta.....	37



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila



Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria



XX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2007/08

OHOREZKO AIPAMENA

AZKEN ERABAKIA

Jose Mari Iriondo

- Sarituaren ibilbidea zinez oparoa da, konpromiso handiarekin hartutako bidea, hain zuzen ere.
- Euskal kulturaren inguruan erakutsi duen jarrera bultzatzailea ere sarigarria iruditzen zaio epaimahaiari. Sarituak zubi-lana gauzatu du euskal kulturaren zabalkundearen; izan ere, beste eragile batzuek jorratutakoa gizarteratzea izan da bere jardueraren nagusienetako bat. Horrela, azpimarratzekoak dira, “Ez Dok Amairu” taldea bultzatzeko egindako izugarritzko lana eta bertsolaritzaren eta trikitixaren zabalpenean egindako ibilbidea. Sarituak lan hori bere gain hartu izan du, plazaratu eta zabaltzeko egin du beste batzuek egindakoa. Gainera, medio handietan lan egiteko aukera ere izan duenez, oihartzun handia sortu da bere ekimenen inguruan.
- Bere lanak 60ko eta 70eko hamarraldietan lortu zuen etekin nabarmenena. Eta bultzatzaile lana aztertzailearen zereginekin osatu du azken urteetan; ezingo dugu aipatu gabe utzi, kulturaren gaineko ikerketak egiten dabilela saritua gaur egun.
- Telebistan euskaraz entzun genituen lehen hitzak bereak izan ziren, Telenorten. Etxeko euskara etxetik kanpo egin zitekeela eta, are gehiago, telebistan bertan ere aditu zitekeela sinestarazi zion euskaldungoari. Gainera, Herri Irratian euskaraz egiten lehenengoetakoa izan zen. Beraz, euskarazko kazetaritzarekiko konpromiso irmoa azpimarratu nahi du epaimahaiak.





Euskaltasunaren hauspoa

Telefunken handi bati esker izan zen. Hala piztu omen zitzaion Jose Mari Iriondori irratiarekiko grina, bere amonaren etxean, Aretzerrekako Atxumariya baserrian. Hain toki txiki batean nola demontre sartzen da hainbeste jende, galdetu omen zion bere buruari Jose Mari umeak eta uhinen misterioak betirako liluratu zuen. Eta liluragarria izaten jarraitzen duelakoan nago Joxe Marirentzat. Izan ere, ume baten grina sumatu izan diot beti bere ahotsari, Loiolako Herri Irratian entzuten nuenetik, duela urte mordo bat jada.

Irrati gizona senez, otso beltzen garaian bete-betean, Jose Mari Iriondo non, grabazio bat han; Ernioko erromerian, Aristerrazun edo supazter goxo batean trikitia irratiara eramanez. Euskara eta kultura lau haizetara zabalduz. Baita ere kantagintzan -“Ez Dok Amairu” mugimenduan ere, nola ez, akuilu izan genuen-, bertso gintzan, herri-kiroletan..., eta telebista aurkezle gerora, Hegoaldean izan ziren euskarazko lehen emanaldietan eta handik urte batzuetara gure Euskal Telebistan. Gauaren ondoren eguna baitator.

Tamainan mintzatuz, entzulearen irudimena lanean jarriz eta elkarrizketatua ongi sentiaraziz; beti komunikatuz, atsegina eta bizkor, horrelakoa da Jose Mari Iriondo esataria. Hedabideetan ibilbide luzeko gizase-



Miren AZKARATE VILLAR
Kultura Sailburua

mea, lemazain lanetan ere fin ibilitakoa dugu: Loiolako Herri Irratia eta Radio Euskadi ez lirateke gaur direna izango Jose Mari Iriondoren gidaritzarik gabe. Bada Jose Mari idazlea eta orain erretretak denbora eskaini dionean horren uzta ugaria jasotzen ari gara.

Eta guztiaren gainetik, Jose Mari Iriondoren izena aipatuta, irudi bat datorkit gogora: “*No cantable, no radiable, no emitible*”-ri muzin eginda, euskaltasunaren hauspoari bikainki eragin zion irrati gizon peto-pettoa. Baina, horrelako zailtasunen artean abian jarritako hauspo horrek, ez du atsedena hartu eta haizea ematen jarraitzen du euskara eta komunikazioari.

Magnetofonia eskuan argazkilaria kamara bezala

Uhinen bidez hedatzen den komunikazioak liluratuta, Jose Mari Iriondok gaztetandik ekin zion irratiko lanbideari. Bide zuzenena hartu zuen, distantziarik laburrenean lan makurra eginez. Administrazioa, publizitatea, gidoigintza, grabaketa saioak..., dena egiteke zegoen euskarazko irratigintzan. Aurrera bidean, lana gogotik egitea besterik ez zegoen. Ongizatearen gizartea deritzon garai honetatik atzera begira ipiniz gero, zaila da Karmelo Otaegi, Itziar Sagarzazu, Jose Mari Iriondo eta enparauek urte luzez erakutsitako lan esker ga barneratzea. Lan hitzarmenaren edo lanorduen banaketaren inguruko etabaidarik ez zen orduan, ez zen existitzen. Irratia lehentasuna zen.

Irratiak Iriondo liluratu egin zuen eta, garai

hartan, herrietako entzuleei gogoko zutena helarazteko begi kolpea izan zuen. Euskarazko hitzak hots bilakatuta, irratia bere baratzea zen. Eta bere jarduna entzuleekin partekatu zuen.

Loiola Irratia herri izaerakoa zenez, programatzaile handiek eta zentsoreek bigarren mailakotzat zuten. Hori, pagotxa hori, erdaldunek jarduera horretan bigarren mailakotzat hartzea! Garaiko irratigizonek arazo baino aukera modura baliatu zuten egoera hura, neurri handi batean. Eta zer esanik ez euskaraz bizi nahi zuten entzuleek. Irratiko programazioa sutsuki jarraituz eskertu zuten uhinen bidez jasotzen zutena.

Bertsolaritza, trikitixa eta kantagintza irratia bidez heda daitezkeen kulturaren hiru adieraz-



Gai jartzaile, estrainekoz
 “1962an lehen bertso jaialdia aurkeztu nuen, Zestoako Hermanoetan, San Jose egunez. Aurkezle eta gai-jartzaile izan nintzen. Basarri, Uztapide, Oranda eta Lazkano ziren bertsotan. Ikaragarri sufritu nuen, ordura arte ez nuen inor ikusi gaiak jartzen-eta. 1961eko txapelketak Afrikan harrapatu ninduen”.

pide dira. Euskal nortasunaren ikurrak, hirurak. Eta hiru adierazpideren garapenean irratia zeresana izan zuen. Telebistatik ez zegoen garai haietan, *prime time* ordutegian bertsoa eta kantua Loiola Irratiak eskaintzen zuen. Hirurak berpizteko, bereziki kantagintza garaikidea, irratia ezinbestekoa izan zen 1960ko hamarraldian. Bada, irratiaz ari bagara, euskal kulturgingintzaz ari bagara, bidezkoa da Jose Mari Iriondo aipatzea.

Makina bat bidaia, makina bat urte magnetofonia batetik bestera eramanez, argazkilariak kamara bezala. Esklusibak, inondik inora. Beste inork gehiagok garai haietan lortzen ez zituen esklusibak. Garai hartako ehunka kantari, bertsolari eta trikitilari bilakatu zen irratia bidez ezagun. Gazte eta ez hain gazte, hasiberri

eta plazetan trebatutakoak..., guztiek elkarren artean zuten adierazpidea hizkuntza zen: euskara.

Zirraragarria izan zen garai hura. Kantagintza modernoaren hastapena, Ez Dok Amairuren sorrera, Bertsolari Txapelketa Nagusien berreskurapena, Trikitixa ikuskizunak Trinitate enparantzan... Urolaldeko antena nagusian zegoen horren guztiaren epizentroa.

Jose Mari Iriondoren ibilbidean, irratia eta euskal kulturaren aldeko lana bereiztea zaila egiten da. Gogoko zuen ogibidea aukeratu zuen eta gustuko zituen kultur adierazpideekin euskal entzuleak harrapatzeko gai izan zen. Irratiak asko zor dio Jose Mari Iriondori, euskarak eta euskal kulturak zer esanik ez.



Irrati handi hura

Gure ama zena hil eta amamaren base-
rrira eraman ninduten urtebete
mutikoa. Gero, tarteka, Gabonetan
eta Sanjuanetan, jaiotetxera ekartzen
ninduten. Zortzi edo bederatzi urte izango nituen,
Eguberri batzuetan etxera etorri eta Telefunken
irradi handia ekarri zutela ikusi nuenean.

Errezilen baserri bat azpian harrapatu zuen
lubiziak, eta ez dakit zenbat hildako izan zuten
hondamendi hartan. Nik notizi hori entzun
nuen irradian, eta euskaraz entzun nuen gaine-
ra, nire hizkuntzan. Eta harri eta zur gelditu
nintzen, eta “kaja txiki horretan nola sar dai-
tezke hiru pertsona?”, egiten nion neure bu-
ruari.



Ramon, Juan eta Jose Mari Iriondo
(1945).

Gau hartan ideia horri buelta asko eman
nion; goizaldera jaiki nintzen pixa egiteko ai-
tzakiarekin eta sukaldera gerturatu nintzen
irradi aparailua begiratzera. Oso irrati dotorea
zen. Bueltak eta bueltak ematen nituen non-
dik eta nola sar zitezkeen bertan hiru pertsona
–bi gizonetako eta emakumea–. Handik aurrera
irradiak xarma berezia izan du niretzat. Eta
etxean nahiz autoan nabilela, irrateria beti dago
presente nire bizitzan”.





“Ramon Labaien eta Joan Mari Torrealdairen atzetik ohorezko aipamena niri egokitzea, ohore handia da niretzat, ederra

Soldadutzatik itzuli eta berehala Loiola irratian hasi zinen, 22 urte jarraian egiteko. Irratia orduan pisu handiko hedabidea zen, itzal handikoa...

Jose Mari Iriondo. Soldaduskatik itzuli nintzen 1961eko abuztuan, Afrikako Sidi Ifnitik. Soldadutzara joan baino lehen bi oposiziotara aurkeztu nintzen, Donostiako Aurrezko Munizipalera eta Banco Vizcayara. Bietan atera nuen plaza baina, elkarrizketa pertsonalean, soldaduskari buruz galdera egin zidaten eta laster Afrikara joan beharko nuela erantzun nien. Itzultzean bietan ere kontuan hartu ninduten eta bietatik jaso nuen abisua.

Baina Afrikan nengoela irratitxiki bat zegoen han eta liluratu

egiten ninduen. Orduantxe Loiolan irratia inauguratu behar zutela jakin nuen eta Saninaziotarako etorri nahi nuen nola-hala, hartuko nindutela abixatu zidaten-eta; baina aukera hori galdu egin nuen. Abuztuaren amaieran iritsi nintzen eta Loiola irratian hasi nintzen lanean berehala, administrazioaren ardura eramaten eta fonoteka antolatzen.

Handik gutxira gidoiak egiten hasi nintzen. *Andre-gizonak* izan zen egin nuen lehena, Imanol Eliasek egin ohi zuen eta astean bitan emititzen zen. Senar-emazteen arteko eztabaidak ziren. Eguerdiko ordubatean eskaintzen zen, irratigintzan *prime-time* zen hori orduan. Gauzak nola aldatu diren!

Nonbait ez zioten zentimorik ordaintzen eta egun hartan abisua eman zuen ez zuela gehiago idatziko. Irratiko arduradunak bazekien ordurako idazteko erraztasuna banuela eta programa hasi baino ordu erdi bat lehenago zerbait idazteko eskatu zidaten, presaka. Eman zidaten denbora horretan prestatu nuen bost minutuko atala. Karmelo Otaegik eta Itziar Sagarzazuk ahotsa ipintzen zioten nik idatzitakoari, oso onak ziren antzerkigintzan. Eta ez garai bateko antzerkigintzan bakarrik, oraingo antzerkigintzan ere oso baliagarri izan zitezkeen haiek. Bat-batean iritsi zitzaidan aukera eta aurreantzean astero egiten jarraitu nuen.

Neuri ere gustatu zitzaidan, animatu nintzen eta larunbat gauero programa egiten hasi nintzen *Beti jai* izeneko irratsaioa, 21:00etik 22:00etara. Gaur, ordu horretan, irrati programa batek

zentzu handirik ez leukake, baina garai hartan telebisio gutxi zen eta irratiaren benetako *prime-time* zen.

Lehen egunean Luis Terrado Mayorrekin batera –Tarazonatik etorritako langilea zen–, eta erdara-euskaraz egin genuen. Baina ez nuen oso gogoko hori, egia esan. Nahasketa xelebrea iruditzen zitzaidan. Juan Lekuona zuzendariari nire iritzia azaldu nion eta galdera egin zidan, “–Zeu bakarrik hori euskaraz idaztera ausartuko al zinateke?”. Baietz erantzun nion, hurrengo larunbatean hasiteko gainera. “–Aizu, ba hasi”, esan zidan.

Ordubeteko saioa zen, erritmo handikoa. Euskal kanta batekin hasten ginen, *Gernikako arbola*, *Agur jaunak*, *Boga boga*... Sarrera eman eta eszenifikatzeko ipuin bat idazten nuen astero. Bost esatari ginen irratian eta bost pertsonaia izaten ziren beti, lau pertsonaia eta kontatzaile/narratzaile

“ Irratian lehendik nekarren euskaltzaletasuna bideratzeko aukera ikusi nuen. Nire baratza zen

“ Nik garai hartan kantari asko grabatu nuen. 140 inguru izango dira denera. Niretzat eskusibak ziren, beste irratietan ez zeuden horiek



“ Mixel Labeguerieren bi kanta besterik ezin genituen emititu, garai hartan Euskadi hitza esatea galarazita zegoelako

“ Badakit teknikoek ez dutela batere ondo hartzen, baina beti pentsatu dut telebista teknikoek diktadura dela

le bat. Ondoren, astero bertsolari ezberdin bat sartzen genuen. Aurretik norbaiti deitzen nion eta gai bati buruz 6-7-8 bertso prestatzeko eskatzen nion. Hura grabatu eta ondoren emititzen genuen. Elkarrizketa eta asteburuko agenda ere beti izaten zen saioan. Eta gero, Patxi Altunaren igandeko ebangelioari buruzko mintzaldia. Guri oso ondo etortzen zitzaigun, ebanjelioa gure egoera politikoan txertatzen zuen-eta, frankismoaren kontra gehienetan. Tira handia izan zuen saio horrek. Eta horrela osatzen genuen ordubeteko irratsaioa.

Ibilbide luze eta oparo baten hasiera izan zen, beraz...

Handik laster, ostiral iluntzetan baserriari buruzko progama bat egiten hasi nintzen, *Erein erein hazia*. Eta beste zenbait gehiago egunero: astelehen gauetan eus-

kal kantagintza, asteartetan euskal musika, ostegunetan erromeria giroa, trikitixa, eta abar.

Joxe Mari Bergara jesuitak lau trikitilariren piezak grabatuta zeuzkan ni Loiolan hasi nintzenarako. Hori ere arraroa da, jesuita bat trikitilarien musika grabatzen! Pikua, Sagastume, Angiozarko itsua, Azkoitiko Begiristain eta horrela ziren. Grabazio politak ziren horiek, beste inon eskaintzen ez zirenak, esklusiba eder bat. Hura hala ikusita, batari eta besteari deika hasi nintzen eta Urolaldeko trikitilari askorekin grabazioak egin nituen: Sakabi, Laja, Zabaleta, Zialtzeta... Programa horrek neuk uste ez nuen bezalako arrakasta izan zuen.

1964a iritsi zenean gauza bera gertatu zen Lourdes Iriondorekin, Aizarnan eman zuen jaialdi batean entzun nuen lehenengo



aldiz, eta hurrengo egunean grabaketa saioa egin genuen berarekin Loiolan. Saio gehiago ere grabatu nituen Julian Lekuona-rekin, Benito Lertxundirekin... Horrela genbiltzala Mikel Laboaren Azken disko txikia jaso genuen. Garai hartan ere Piarres Larzabalek Mixel Labeguerieren bi disko ekarri zizkidan Irungo taberna batera. Oraindik gordeta dauzkat bi disko horiek. Bi kanta besterik ezin genituen emititu ordea, garai hartan Euskadi hitza esatea erabat galarazita zegoelako. Orotara, garai hura ikaragarri polita eta aberatsa izan zen.

Irratiko urte horietan guztietan buru-belarri aritu zinen, gainera...

Irratian horrela sartu nintzen. Batetik, kezkarakin. Oposizioak atera eta alde batera utzi nituen lan seguruagoak, etorkizun baterre argia ez zuen irratiko lanbide-

an murgiltzeko. Gure anaia Juan, Nuarbeko bere lagun batek, “*–emisorak eta ilusio txorruak utz ditzala alde batera, hortik ez dik ogirik jango-eta, eta tailer batean lanean serio hasteko esaiok*”, esan omen zion niregatik. Beraz, lehendik kezka hori banuen, baina ahaztu egiten nuen eta orain, inor kanpotik abisuak bidaltzen. Eta ni neroni, berriz, “*irratia gauza polita da, ez du tailerrarekin zerikusirik*”. Ez nuen etorkizunean pentsatu nahi. Hiriburuetan bai, baina bestela ez zen ikusten irratia norabide handiko medioa zenik Azpeitia bezalako herri txiki batean behintzat. Gero urteak igaro dira eta ez da lanbide ikaragarria izan, hau da, diruagatik bada, irratia batean ez dadila inor lanean hasi aberastuko dela pentsatuz! Baina bizitzeko adina ematen du, beste edozein lanbidek ematen duen bezalaxe.

“**Ikara-garrizko suertea eduki nuen bertsolariekin, kantariekin, trikitilarekin... Horiek guztiak besteen pare irratian jartzeko aukera izan nuen**

“**Esan ohi da bertsolari on bat ez dela txapeldun izaten, beste bat hobe baduelako aurretik. Alde horretatik aurrekorik ez nuen izan! Suerte hori izan nuen**



Iriondo itzultzaile

- Lankide Aurrezkiaren publizitate guztia, 1967an hasi eta 1983 arte.
- Gipuzkoako Kutxaren publizitatea.
- Espainiako Telefoniaren publizitatea hiru-lau urtez (1980).
- Nissan Ibericaren publizitatea hiru-lau urtez (1979).
- Herri Irratiko publizitate guztia, 1961eko abuztutik 1983ko martxora arte.

Iriondo hizlari

[Askoren artean]

- "Las Radios locales y la Radio Autónoma Vasca". Universidad de Santander, Palacio de la Magdalena, verano de 1988.
- "La Radiotelevisión Vasca EITB". Universidad de Navarra – 1990.
- "Hacia dónde camina la Radio" – Universidad de la Laguna – Canarias, Cursos de Verano de 1995.
- "Euskara Irratian". Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokaren inaugurazio egunean, 2003ko abendua-ren 3an.

Eta Loiola irratian makina bat lan, milaka elkarrizketa tartean...

Albisteak eta aktualitateta Radio Nacional de Españaren eskusiba ziren. Eta herrietako informazioari buruzko lan polita egin genuen, eta elkarrizketa asko, batez ere, jendearengana hurbilduz. Garai batean, Movierecord agentziak COPEko irrati guztiekin kontratua egin zuen, eguerdiero, *La radio marcha* bi orduko programa emititzeko. Programa horretan agertzen zen publizitate guztia agentziak ekartzen zuen.


Loiola Irratia soka horretan sartzen zen baina probintziko irrati txikia ginelako-edo, agentzi horrek ez zuen publizitatearen eskusibarik hartu nahi izan Loiolarekin. Guk, ordea, bage nekien entzulego ona genuela. Garai hori pasatu zen, eta arratsaldeko 19:00etik 21:00etarako programa egin genuen, *Bidez bide* izena jarrita. Eguerdiko progra-

marako eguerdiero hiru elkarrizketa egiten genituen kanpora erreportari ateratzen ginenok. Elkarrizketa bakoitza herri ezberdinetik zuzenean, jakina. Elkarrizketa asko egin genuen.

Beti jai eta horrelako beste programa batzuetarako elkarrizketa luzeak ere askotan egiten nituen. Eguerdiko programa hura gero arratsaldera pasa genuen, Lankide Aurrezkiak eta kooperatibak babestuta. Hura izan zen oihartzun handiena izan zuen programetako bat.

Urteak aurrera joan ahala telefono bidezko elkarrizketak egiten hasi ginen, baina ez da gauza bera. Erosotasunean irabazten da, baina elkarrizketa bat egiteko elkarrizketatua aurrez aurre izatea oso inportantea iruditu izan zait beti. Lau mila elkarrizketa aipatu izan dira, baina askoz gehiago izango dira egindako elkarrizketak, seguruenik.





Irratigintzaren alor guztietan arituta, nola definituko zenuke irrateria?

Erosoa, beste hedabideak baino medio errazagoa da. Pertsonaliza daitekeen medioa da. Ez da telebista bezala. Telebistan tekniko pila ikaragarriarekin egiten duzu lan. Inoiz lehen esan izan dut –nik badakit teknikoek ez dutela batera ondo hartzen hori–, telebistako lana teknikoen diktadura

dela. Irratia, ostera, alde horretatik behintzat, oso medio erraza da. Oso logikoa. Eta ez da garestia gainera, baizik denetan merkeena.

Aukeren artean irratiaren alde egiten duzu, beraz...

Nik gehien maite dudana medioa izan da, eta da orain ere. Dударik ez nuke egingo aukera egin beharko banu.

Iriondo hizlari

[Askoren artean]

■ "Euskal Irrati-Telebista". Santiago de Chileko Euskal-Etxea, 1983ko martxoaren 20an.

■ "Lehenengo irratiak Euskal Herrian". Zumarragako Udaltxeko Kultura aretoan, 2004ko maitzaren 21ean.

■ "Trikiti kopla zahar eta berriak". Trikitiaz jardunaldiak, Euskal Herriko Trikitixa Elkarreak antolatuta, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, 2005eko irailaren 7an.

■ Gipuzkoako Artzain Eguna 2005ean, "Mixel Lekuona: Hegoaldeko artzainen maisu" hitzaldia Legazpiko Kultur Etxean, 2005eko abuztuaren 31n.

■ "Jose M. Aranalde Olaondoren hilberria", Euskaltzaindiaren eskariz, Gipuzkoako Foru Aldundiko aretoan, 2006ko urtarrilaren 27an.

■ 2006ko irailak 26, Torreko damaz (Lourdes Iriondo), Urnietako Lekaio Kultur Etxean.

■ Eztok-badok amairu mahai-ingurua, Oñatiko Santa Ana aretoan, 2008ko apirilaren 25ean. Ez Dok Amairu eta garaikideen musikaren egoeraren historiaz, Pello Zabalarekin batean, Elkarhezi taldeak antolatuta.

Ez Dok Amairu

“Zarauzko Euromar hoteleko kafetegian egin zen lehen bilkura. Hau hotela zen lehen. Eta Joxan Artzek eskatuta egin zen bilera hura, nik ordura arte ez nuen ezagutzen. Lourdes Iriondok hots egin zidan bilera egin behar genuela esanez. Urriaren hamairua zen eta neronek ez nekien zertarako zen bilera. Badazpada ere alkahuetea (magnetofoia) ekarri nuen bizkarretik zintzilik. Joxan Artze liluratuta zegoen Loiola irratian entzuten zituen kantak zirela eta. Izan ere, orduan bazegoen kezka larri hori, “castellanoa nola sartzen ari zaigun gazteen artean”. Zerbait egin behar zela, alegia, eta luze jo zuen bilera.

Handik hamabost egunera gurean –Azpeitiko Belaetxan– bildu ginen, Zarauzkoari jarraipena emateko. Hirugarren bilera Donostian egitea erabaki genuen Benito Lertxundi, Imanol Urbietta, Jose Antonio Villar, Julian Lekuona, Xabier Lete, Joxe Anjel Irigarai eta abarri hots eginenez. Azaroan egin zen bilera hori. Inoiz irakurri dut bilera Kursaal zaharreko sotoan egin omen zela, baina hori ez da egia. San Martin kaleko arkupeetan dagoen Iturriotz tabernaren sotoan bildu ginen”.

Badakigu haurra zinela liluratu zinela irratiarekin. Eta euskararen aldeko lanarekin?

Euskaltzaletasuna umetatik genuen guk etxean, beste hizkuntzarik ez genuen ezagutzen-eta. Gabirira bidali ninduten ikastetara, gero Deustura eta Eubara. Gabirira erdaraz tutik jakin gabe joan nintzen. Ulertu, ulertzen nuen zerbait, baina hitz egin ez. Lehenengo ikastaro osoa inorekin erdaraz hitzik egin gabe burutu nuen. Gogoan dut ekainaren azkena etorri eta gure begirale aita Eladiok nola esan zidan, “–*Tú, Iriondo, ¿Te vas a presentar al examen final?*”. Baietz erantzun nion eta berak, orduan, “–*¡Si nunca has hablado ni una sola palabra en castellano!*”. Azterketa egingo nuela agindu nion eta ondo samar egin nuen. Erraz atetara nuen ikastaroa behintzat. Azken finean, ikastea hain zaila ez zela konturatu nintzen. Ordurako lanean ondo ohituta nengoen. Baserriko lanetan jardun edota ikasten jardun..., eta Gabiriko hura niretzat aukera erraza zen.

Joxe Mari Larrarte eta Koldo Sarasolarekin beti euskaraz hitz egiten nuen. Larrartek aukera politak eskaini zizkidan gainera. Astean hiru klase izaten genituen euskaraz eta aldian behin, liburu bat irakurtzera behartzen gintuzten. Irakurri eta laburpena egin behar genuen gainera. Or-

duan, lehenengo aldiz, Basarriren bertso sorta liburu irakurri nuen (Itxaropena, Zarautz 1950).

Idatzi ere egin behar izaten genuen, eta nik behin batean, “*Noiz, amatxo?*” idazlana prestatu nuen, Loramendiren ipuin batean oinarrituta. Nik eskuz idatzi nuena aita Larrartek makinara pasatu eta Donostiako Oargik antolatzen zuen Agora ipuin lehiaketara aurkeztu zuen. Goia dentistarekin nenbilela, Gabiriko neska batek –Edurne Muruak– zoriondu egin ninduen saria irabazi omen nuelako. Maiatza aldeira izango zen hori, baina ikasturtea amaitu arte ez zidaten ezer esan nahi izan, harrotuko nintzen beldurrez-edo. Nobela laburraren saria eman zidaten, berez ipuina bazen ere nik idatzi nuena. Eta urte hartako oporraldia iritsi aurretik, Joxe Mari Larrartek bere sari bezala, Lazkaora eraman ninduen Orixe ezagutzera.

Bestalde, nik etxera bidali nuen lehenengo karta koplatan idatzi nuen. Ez dira paboak baina gordeta dauzkat oraindik. Nik ez nekien koplaren legerik, eta buruan Santa Ageda koplak nituela idatzi nuen karta. Bestalde, Koldo Sarasolak eta biok “ditxoka” askotan egiten genuen mendira joaten ginenean eta. Neurtuta egiten zituen berak ditxoak, eta “–*oso ondo egiten duk baina silabak neurtu behar dituk*”, esaten zidan.

Silabak behatzekin nola neur-tzen diren ere erakutsi zidan.

Gure taldean zaharrena nin-tzen, eta eragin handi samarra nuen kurtsoan, itxuraz. Hau da, zaharrenak esaten zuenak asko balio zuen gazteen artean. Aita Santi Onaindiaren *Mila euskal*

olerki eder liburua oparitu zidaten behin, beti euskaraz egiten aha-legintzen nintzelako. Beste batean Arantzazun editatu zuten Txomin Agirreren *Garoa* oparitu zidaten, eta ez nintzen haserre!

Gure lehen sei urteetan euska-ra eta latina ezinbesteko ziren



Atzera begira, irudi bidez



Jose Mari Iriondo eta Txomin Garmendia bertsolaria (1963.05.19).



Izarraitz pilotalekuaren berrinaugurazioa, Atano III. arekin.



UEU, 1981. Martin Orberren hitzaldia grabatzen, Iruñean.

Gai jartzaile



“1962an lehen bertso jaialdia aurkeztu nuen, Zestoako Hermanoetan, San Jose egunez. Aurkezle eta gai-jartzaile izan nintzen. Basarri, Uztapide, Oranda eta Lazkano ziren bertsoetan. Ikaragarri sufritu nuen, ordu-ra arte ez nuen inor ikusi gaiak jartzen-eta.

Bertsozalea betidanik izan naiz, Txapel eta Lizaso Aratz-errekako San Isidro festetan eza-gutu nituenetik, 9 urte nituela. Geroz betidanik izan dut bertsolarien lilura. Etxean ere bertso zahar asko kantatu ohi zen.

Zestoakoaren ondoren, 1962tik 1983ra gai asko jarri nuen jaialdietan. Gehiegi ere bai askotan. Urte batean, gainera kontatuta daukat, hirurogeita hamasei bertso-saiotan jarri nituen gaiak. Hori gehiegi da, gaiak jartzeko ideiak argi eduki behar baitira, eta bertsolari bakoitzari luzitzeko bidea nola eman ere jakin behar baita. Azkenean jaialdi askorekin ilundu egiten zara”.

ikastetxean. Latinean huts eginenez gero atzera egiten zenuen ikastaroan, eta euskaraz, berdin-berdin. Beraz, euskarak latinak bezainbesteko garrantzia zuen. Eta hori niretzat ikaragarri inportantea izan zen, euskarak garrantzia hori izatea, hara joan nintzenean euskara baizik ez nekielako, eta erdararik jakin gabe defenditu nintzelako ordura arte beti. Eta han ikusi nuen euskara erdara baino inportanteagoa zela guretzat. Esandakoa, lehen ikas-turte osoa erdaraz hitzik egin gabe pasa nuen. Beraz, euskarak balio zidan niri, ezbairik gabe.

Bertsolaritza, trikitixa, kantagintza... Kultur eragile izan zinen 60-70 hamarkada horietan...

Banketxean lana egin baino irratia nahiago nuen. Eta ikaragarriko suertea eduki nuen bertsolariekin, kantariekin, trikitilariekin, herri kirolariekin... Eta horiek guztiak besteen pare irratian jartzeko aukera izan nuen. Suerte handia izan nuela esan dut, loteria eder hura tokatu zitzaidan. Esan ohi da bertsolari on bat edo kirolari on bat ez dela txapeldun izaten askotan, beste bat hobea baduelako aurretik. Nik alde horretatik aurrekorik ez nuen izan! Suerte hori izan nuen...

Bertsolaritzari dagokionez, as-tero bertsolari berri bat sartzen nuen irratian, arestian esan bezala. Eta 1961eko Eguberrietan Jo-

xe Arregi *Alkiza* apaizaren karta jaso genuen irratian, Fanderiko pentsuen babesarekin bertsolari gazteen sariketa egin nahi zutela esanez. Ordurako, Lekuonarekin hitz eginda neukan nik bertsolari gazte edo bigarren mailako edo ezezagunekin zeozer egin behar-ko genukeela irratian. Halaxe, bilera egin genuen Joxe Alkizarekin eta ligaska moduan norgehiagoka egitea erabaki genuen. Sei bertsolari izan ziren lehen urtean, bi taldetan banatuta eta denak denen aurka aritzeko. Iratian hasi eta azken jaialdia jendaurrean egin genuen, Azpeitiko Zelaitxon. Txomin Garmendiak irabazi zuen urte hartako saria.

Irabazlea nor zen erabakitzea entzuleen esku utzi genuen. Guretzat ere froga modukoa zen, zenbat entzule genuen ikusteko. Karta bidez erabaki behar zuten eta guk, gure artean, “*Ehun karta hartuko bagenitu, ondo*”, pentsatu genuen, baina lehen astean zortzirehun gutun pasatxo jaso genituen. Hori mundu berri bat zen guretzat. Hamar bider antolatatu genuen sariketa hori, eta aste batean 1.600 karta jasotzera iritsi ginen.

Bertsolariekin izandako arrakastaren bidetik, trikitilariekin plan modukoa aurkeztu nion irratiko arduradunari. Araudia egin nuen eta asko hitz egiten nuen Sakabirekin, adibidez. Bai-

Kantari berriak



ta Lajarekin ere. Plana aurkeztu nien zera esanez, “–Bertsolariekin bezala zergatik ez egin lehiaketa bat zuekin?”. Gogoan daukat oraindik Sakabik bota zidan erantzuna, “–Bai! Baina orain bezain lagun izango al gara gero?”. Moztuta utzi ninduen eta beste batean hitz egiteko geratu ginen. Laja, Tapiá..., Sakabiren iritzi berekoak ziren.

Donostiako CATen proposamena egin nuen 1969an, eta 1970eko iraileko Euskal festetan erakunde horren izenpean antolatu genuen txapelketa, Trinitate enparatzen. “No hay billetes”, ez zen askotan jarriko ordura arte, baina egun horretan lortu genuen.

Frankoren zentsurapean lehen denuntzia kanta batekin izan ge-

“Ordura arte koru onak bagenituen baina kantagintza modernoa lantzeko talderik ez zen gurean. Zeregin horretan Nemesio Etxaniz apaizak laguntza handia eskaini zigun. Baze goen Soroak laukotea izeneko bat (Robles-Arangiztarrak). 1957 urtean hasi ziren euskal jaialdiak ematen Bilbo aldean. Zertan ziren desberdinak haiek? Kantu zaharrak hartu eta kitarraz lagunduta ukitu modernoa ematen zioten kantuari. Musika beltza eta espirituala ere lantzen zuten, baina euskaraz. Jakin badakit Mixel Labegueriek 1962an Hazparneko Aberri Egunean Soroak lauko hori ikusi omen zuela, eta “–Hauxe da nik nahi nuena–”, oihu egin omen zuela pozik.

Bitxia da, baina urte hartako azaroko Enbata aldizkarian jaialdi horren inguruan zera aipatzen du Soroak taldeari buruz: “–Mutiko hauek zer dira, tontoak ala eroak? Kitarra espainolarekin kantatzen dute”.

Bertsoreen suspertzaile



■ 1962ko negu-udaberrian (otsaila-maiatza), Bertsolari Gazteen lehenengo sariketa antolatatu zuen Loiolako Herri Irratian, bertsolari gazte edo hain eza-gunez zirentzat. Eta 1972 urtera arte, hamar sariketa egin zituzten, zentsuraren hesi eta oztopoak nola edo hala gaindituz. Sekulako arrakasta izan ohi zuen urteroko sariketa hark.

■ Urte askoan etenda egon zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia berriro martxan jarri zuen, Juan Mari Lekuona, Joxe Mari Aranalde, Joan San Martin, Alfonso Irigoien, Antton Aranburu eta abar lagun zituela. Antolatzaile, elkarteko idazkari, gai-emaille eta aurkezle izan zen.

■ Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketak ere Aranburuk eta Iriondok antolatatu zituzten, Imanol Muruaren eskariz, lehen bi urtetan.

■ Zarauzko Lizardi bertsolari-txapelketa eta Trikitilari gazteen sariketa antolatzen lagundu zuen.

nuen Loiolan. 1962an “Gernikako Arbola” osorik jarri genuelako, hain juxtu. Orduan denuntziak Oficina de información y turismo-ren bidez jakinarazten ziren. 1964-1965 urteetan kantari berrien garaia izan zen. Garai hartan Bilboko *Soroak* (Robles-arangiztarrak) taldeak disko txiki bat bazuen. Gero etorri ziren Lourdes Iriondorekin egin genituen grabazioak, Julian Lekuonarekin egindakoak, Mikel Laboaren Azken disko txiki zoragarri hura eta abar, eta horrekin guztiarekin..., animatu, hotzenak ere animatu behar zuen! Ikaragarriko arrakasta izan genuen irratian. Gaurko irratigintzan aukera oso zabala da, irrati asko dago eta; baina orduan familikotasun handia zegoen irratiarekiko.

Labur esateko, bertsolariekin, trikitilarekin eta musikariekin aukera berdingabe horixe izan genuen. Eta aukera hori izan nuelako eskerrak ematen lan handia daukat gaur egun. Aukerak onak ziren eta nik lehendik nekarren euskaltzaletasuna bideratzeko modua ikusi nuen hor, irrati-entzuleei ere aukera hori emanaz. Nire baratzea izan zen.

Urteak igarota, bihotz-begiekin ikusten jarraitzen duzu bertsoa, trikitixa eta musika?

Trikitixari dagokionez, diskorik egiten den bakoitzean kopia bat eskuratzen saiatzen naiz, batetik

ez bada bestetik. Bertso asko entzuten dut jaialdietara joaten ez banaiz ere, beste zeregin asko dudalako eskuartean. Gure etxean, lehen bertsoz aspertu nituen garai batean. Grabatzera asko joaten nintzen, eta etxera etorritakoan, grabazioa entzun behar fitxa egiteko: gaiak, bertsolariak..., eta orduan aspertu egin nituen. Pilota, kantagintza edota arraua jarraitzen ditut orain ere. Ez lehen bezalako intentsitatearekin, baina gogoko ditudalako jarraitzen ditut.

Ezin ahaztu ere Ez Dok Amairu ekimena sustatzen hartu zenituen lanak eta kantarien grabaketari emandako urteak...

Zarautzen eta Azpeitian egindako bilerei jarraipena emateko Donostian hirugarren bilkura egitea erabaki genuen. Azaroan egin zen bilera hura. Lourdes Iriondo, Joxan Artze, Xabier Lette, Benito Lertxundi, Imanol Urbietia, Jose Antonio Villar, Julian Lekuona, Nemesio Etxaniz, Joxe Angel Irigarai, Luis Iriondo, Jose Luis Frantsesena, Luis Amilibia, Paxo Olazabal, Miguel Bikondoa..., jende pilo handia bildu ginen, San Martin kaleko taberna bateko sotoan. Eta talde serioa egitearen premia ikusi zen egun horretan. Inork ez zuen aktarik jaso, nik jaso nuen.

Donostian egindako bigarren bileran norbaitek *Ez Dok Amairu*

Martintxo errementariaren ipuinaren izena ekarri zuen taldeari izena jartzeko. Gauzak beste modura kontatzen dira, baina norbait horrek Oteizari ere erakutsi ziola esan zuen eta Oteizak erantzun ziola “*–Cojonudo, me parece cojonudo, estupendo! Bonito nombre!*”. Beraz, Oteizaren parte hartzea izena jartzeko garaian hori izan zen: onespena. *Ez Dok Amairu* izena ipintzea ahobatez onartu genuen.

Hernanin eta Donostian bi jaialdi egin ziren urtarrean, baina *Ez Dok Amairu* izena erabili gabe, *Jarrai* taldeak antolatuta. Angeles Murgiondo eta Ramon Sazarbitoria zirela ustedut jaialdi bietako aurkezle. *Ez Dok Amairu* izenpean lehenengo jaialdia, agerpen ofiziala alegia, Irungo Bellas Artes-en egin zen, 1966ko martxoaren 6an. Eta *Baga Biga higa ikuskari/sentikaria* hasi arte neu ibili nintzen taldearen aurkezpenak egiten, gehienetan. Geroztik harremana izaten jarraitu nuen, baina ez taldekide.

Bestalde, garai hartan kantari asko grabatzeko parada izan nuen. 140 fitxa inguru izango dira denera, gutxienez. Pantxoa ta Peio ere lehenik zintan grabatu nuen. “Itziarren semea” kantua berehalaxe zentsuratu ziguten.



Manuel Lekuona



“Ez zen elkarrizketa zalea. Galderak aurretik eman behar zitzaizkion beti, eta erantzunak ondo idatzita ekartzetuz zituen. Elkarrizketa lortu nuen behin, eta galdera transzendental samarra prestatuta eraman ere bai nik. “–Aizu, Don Manuel, nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?”. Lekuonak, eskuarekin mikrofonoa kendu eta zera esan zidan, “–Etzaidazula galdera hori egin bestela haserretu egingo naiz eta!”.

Elkarrizketa amaitu eta gero erantzun horren zergatiaz galde-tu nion eta zera esan zidan, “–Oso larri ikusten dudalako asuntua”. Neuk ere beldur hori betidanik izan dut.

Txilera maiz joaten naiz familia asko dudalako han. Eta han –Txilen, Argentinan, Bolivian eta abar– hizkuntza txiki-piloa hil da azkenengo urte hauetan. Euskara baino askoz txikiagoak ziren, noski. Eta euskara ez dut uste haiekin konpara daitekeenik, baina...”.

“ Eusko irrati-etan, beti diru miserian ibilginen. Baina bateko diru miseria eta Loiolako diru miseria oso desberdina zen!

“ Bederatzi urte pasa nituen egunero Bilbora joanez. *Bilbainoa* naizela esaten didate, baina profesionalki, Bilbo niretzat oso inportantea da



Baina niretzat eskusibak ziren grabazio haiek denak, beste irrati-tietan ez zeuden kantuak. Gero jende askok hots egiten zidan jaialdietarako telefonoak eskatzeko. Trikitilariekin eta bertsolariekin ere berdin gertatzen zen. Egun badago Lanku izeneko elkarte bat lan hori egiten duena, ezta? Hori nik egin nuen urte luzez, baina komisiorik kobratu gabe, klaro! (kar, kar).

Euskaltzetasuna, kulturgintza, kazetaritza... Euskaltzaindiari eskainitako urteak ere ez dira gutxi...

Euskaltzain urgazle naiz 1976az geroz, eta Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordean nago. Herri Literaturaren batzorde honek

lan askotarako modua ematen du, askotan hitz egin gehiago egiten badugu ere, lan egiten duguna baino.

Batzorde horrek egin beharreko Auspoa argitaletxearen hустuketa egiteko dago, hiztegia ere bai, bestetik. Oraindik ere gure hiztegian Auspoan dagoen hitz asko falta da. Esaterako, Azpeiti aldean hitzean eta hortzean erabiltzen dugun “*Lanak egin al dituzue?*”, eta “*Bai, handi aurkiak egin ditugu. Handi aurkiak*”.

Errezeloa, adibidez, hiztegian badago baina zentzu peioratibotan. Oстера “*Errezeloa izan*”, ez duk aurkitzen hiztegian. Eta Auspoan daude horiek denak eta gehiago, eta lan handia dago jasotzen eta sailkatzen. Denboraz egingo dugu.

Euskaltzaindiarekin zerikusirik ez du, baina Auspoa taldean ere ari gara lan eta lan. Talde txikia da, Antonio Zavalaren ardurapean dagoena. Auspoari jarraipena eman nahi zaio, merezi du-eta. Hor dago ere, Javier-etik ekartzeko dagoen artxiboa ordenatu beharra. Ordenatze horretan, eta dena Koldo Mitxelena Kulturunera ekartzen parte hartuko dugu. Denbora baterako joan beharko dut hara, itxura denez, artxiboa ordenatzen Zavalari lagundu eta behingoz Gipuzkoako Foru Aldundira ekartzeko, digitaliza dezaten. Lan asko dago, bai, eta gustuko lanak gainera.

Eta atzera berriro, 1976 urteko 24 orduak euskaraz. Zein oroitzapen gordetzen duzu?

Jauzi handia izan zen, baina egun bakarrekoa. Denok hartu genuen parte antolaketa hartan, baina lanik handiena Joxe Ramon Belokik egin zuen. Niri, besteak beste, gauza oso polita tokatu zitzaidan, batez ere Bilboko Herri Irratiak eta Iruñekoak Loiolarekin eta Donostiarekin konekta zezaten gestioak egiten.

Euskaltzaindiaren izenean, Jose Mari Satrustegirekin batera Madrilerara joatea egokitu zitzaidan. Halako garaia ziren, eta Información y Turismoko ministeriotik baimenen garantia jasotzera joan ginen. Ez ginen, ordea, zuzenean Información y Turismo joan. Lehenengo Areilza jaunarengana jo genuen –garai hartan Jose Maria Areilza zegoen Kanpo Harremanetarako ministro–. Ez genuen gu arrarotzat hartzerik nahi Información y Turismoko ministerioan, eta Areilzak lasai ibiltzeko esan zigun, eta txoferra berak ipiniko zigula. Jose Mari Satrustegi eta biok ministro baten autoan joan ginen, bada, baimen bila. Baimena eman ziguten, baina “legeak ondo gordetzeko” aginduz, eta subertsibitatearekin kontuz ibiltzeko agindu ziguten, petralkeriaz. “Gora Euskadi” edo antzekotan sartzen baginen polizia bertan izango genuela ekitaldia *ipso facto*



mozteko. “*Se autoriza la celebración, siempre respetando la legalidad vigente*”, adierazten da idatzian. Orain ere berdintsu esaten dute.

Eliza zenbateraino izan zen garrantzitsua euskararentzat?

Gure kasuan eliza ez baina, Loiola irratia esan beharko genuke, edo jesuitak. Guk bagenuen COPEn aurrean eta Gipuzkoako Gobernadorearen aurrean abantaila txiki bat: probintziako irratia koskorra besterik ez ginen kapitaleko jendearentzat, eta horri esker oztopo askotatik ihes egiten genuen. Hala ere, zentsura gogorra zen garai hartan, edozeri heltzen zioten. Gainera salatariak ez zeuden gurgantzik hain urruti.

H-a eta marxismoa



“Orduan ere politikarekin nahiko arazo bazegoen. Maximiliano Alonso zen orduko zuzendaria eta bilera-tik irtetzean, bere despatsura deitu eta galdera bitxia egin zidan. Bazekien Euskal Herria bi hitz zirela baina, esan eta zioten herria h-z jarri beharko genukeela. Eta zera galde-tu zidan, “-Oye, ¿la h es marxista aquí?”. Eta nik galdera ez nuela ulertzen erantzun nion; baina bidez batez, gailegoek egiten duten bezala beste galdera batekin erantzun nion, gaztelaniaz hermano idaztea marxista al zen, alegia, h letraz idazteagatik. Letra batek marxismoarekin ez zuela zerikusirik esan nion, “-Un idioma no puede ser diferente del otro. La h no tiene nada que ver con el marxismo. Encima la h la ha decidido Euskaltzaindia ¡y más de la mitad de Euskaltzaindia son curas! Que marxismo vas a encontrar ahí...”. Izena horrela erabakita zegoela eta, TVE-n Euskalerrria izena ipini zioten programari”.

Egungo prentsa



“Hiruretatik gutxiena telebista. Irratia asko entzuten dut, etxean nahiz autoan. Kazetaritza idatzia jarraitzen dut. Goizero edizio elektronikoak begiratzen ditut eta hartzen dudana egunkaria ez dut oso gogoko, baina..., bada-kizu ba, eskelak agertzen direlako bereziki hartzen dut. Beharrezkoa dut Azpeiti aldera joan behar ote dudana jakiteko. Goizero nire lehenengo lana ordu pare bateko ibilaldia izaten da. Gero, txukundu, gosalduta eta idazten hasi aurretik, edizio elektronikoak begiratzen ditut.

Garai batean ez zen sinestekoa egunero egunkari bat euskaraz aterako zenik. Deia eta Egin bi hizkuntzatan hasi zirenean, banuen susmoa bi hizkuntzatan hasi diren medio denak bezalaxe azkenean hizkuntza bat dela dominatzaile. Susmo hori banuen eta horrela gertatu da. Deia, Gara, DV..., horien guztien kasua da”.

Esan bezala, gurean eliza ez, jesuitak ziren. Juan Lekuona zen Loiola Irratiko zuzendari eta sekula inoiz ez zigun oztoporik jarri. “*No me metáis en líos pero hacer lo que os parezca bien*”, esan ohi zuen. Ez zen gutxi. Eta behar zenean defenditu egiten gintuen inoren aurrean.

1962an bota nahi izan ninduten irratitik. Ruandatik etorrira zegoen Xegundo Aizpuru apaizaren bidez jakin nuen hori. Lekuonarengana jo nuen berehalaxe, eta orduan irratiko zuzendari nagusi zen aita Ibirikurekin hitz egingo zuela esan zidan. Talde subertsibo bateko kide nintzela esan zutela eta kezkatuta zeuden... Nire kaleratzearen inguruan Ibirikuk erantzun zion Lekuonari: “*Kolpe hori geldituta dago*”.

Zentsura bai, baina askatasuna edo..., ezkutuko askatasun antzekoa izan genuen behintzat, eta laneko gure hizkuntza euskaraz zen. Elizak ere ikastolak abian jartzeko babesa eskaini zuela esaten da. Beno, euskal elizak esan beharko genuke, guztiz desberdina baita. Egia esan, euskal elizak badu bere meritua. Eta jesuitek ez dute fama hori baina, gure kasuan, euskararekiko errespetu handia erakutsi ziguten.

Irratian eta telebistan egon daitetzkeen lanbide eta xehetasun guztiak ezagutzen dituzu...

Irratian eta telebistan denetik egitea egokitu zait, bai. Askotan esan izan dut, Loiolan entzule batek zozketa batean irabazitakoarekin paketetxo egin eta bidaltzea ere tokatu zaidala, gidoiak idaztea, diru kontuak egitea, publizitate bila ibiltzea..., denetik egitea tokatu zait. Eta informazioa lantzea. Orduero ematen zen albiste saioa teletipoarekin egunero idazten nuen, egunean 8-9 ordutan bai behintzat. Loiolan alderdi tekniko lantzea ere egokitu zitzaidan, Onda Media kendu zigutenean FM montajea egitea, alegia. Lekuona eta biok bakarrik ibili ginen garai hartan.

Eusko irratietan ere, besteak beste, zeregin teknikoak tokatu zitzaizkidan, Bilboko obra guztia edota Eusko Irratietan Onda Media martxan jartzea. Gero, RDSa martxan jartzea ere tokatu zitzaidan. Azpiegitura hor dago, baina ez du horrek betetzen nahi genuen funtzioa, daturik sartzen ez dutelako.

Legealdi batez ETBko zuzendari izan ostean, eusko irratietako koordinatzaile izendatu nindutenean, aldi berean, Radio Euskadiko zuzendaritza bete behar izan nuen. Ni Bilbora heldu nintzenean, Radio Euskadi emisora musikala zen goitik behera, ez konbentzionala. Irrati formula baten parekoa zen, eta berriro irrati konbentzionala egitea erabaki genuen, eta fun-

tzionatu egin du. Ez dago begiratu besterik.

Garai hartan frekuentzi berriak lortu genituen Euskadi Gaztea martxan jartzeko ere, lehengo frekuentziak irrati konbentzionalerako utzita. Egia da, alde horretatik Bilboko lantaldetik erraztasun handia eman zidatela, batez ere irrati konbentzionala egitearen alde zeudelako. Kazetari asko zegoen irratian, eta haiek asko animatu ninduten. Orduko idatzi batean agertzen da Radio Euskadi ezingo dela itzuli irrati konbentzionala izatera, audientziarik ez duela izango-eta. Eta, hain zuzen, irrati formula alde batera utzi eta eduki berriekin nahiz informatiboekin entzulegoa hirukoiztu egin zen. Beraz, idatzi hartan esaten zenak ez zuen fundamenteu handirik.

Eusko irratiaren ere diru miserian ibili ginen, baina hango diru miseria eta Loiolako diru miseria oso desberdina zen!

Irrati publikoaren eta Loiola irratiaren artean ezberdintasun handiak daude, ezta?

Desberdintasuna ikaragarri da. Irrati txikian langileon jarrera oso desberdina zen. Irrati txikian, badakizu non

gastatu behar den eta non ez, gauza pittina izaten da eskuartean eta. Gure garaiko langileak eta oraingoak ere ez gara berdinak izango, seguru asko. Militantismoz edo beharrez, beste joera bat zen hura. Gaur



Egungo prentsa



Berria-ren kasua fuertea da. Herrietako Hitzak ere hor daude eta Argia ere bai, -lehen Argian bertso paperak argitaratzen ziren eta orain hutsune hori nabaritzen dut-. Euskarazko hedabideetan ikaragarriko aurrerapausoa eman da. 60ko hamarkadan burua jarrita ez da sinestekoa.

Ez ditut hainbat jarraitzen tokian tokiko hedabideak; Txaparro eta Uztarria bai. Euskadi Irratian asko irakurtzen nuen. Lan polita dago hortxe ere. Herri aldizkariak oso garrantzitsuak dira. Bere funtzioa hobeto betetzen du, errazago eta merkeago delako seguru asko. Ziurrenik herri aldizkarietan dabilen jendea akituta egongo da, gutxi ordaintzen dutelako. Nik uste Udalek beste esfortzu bat egin beharko luketela.

Herri telebistetan, aldiz, ez dut sinesmen handirik. Telebistaren labeari sutan eusteko diru asko behar da. Nahiago nuke oker banengo, baina utopiko samar ikusten dut herri telebistena”.

Izenak



Joan Mari Torrealdai

“Jakin ziklostilez atezaten zutenean, 1957-58 urte inguruan, jasotzen nuen. Gero ere jasotzen jarraitu nuen. Eta hortik ezagutzen dut Torrealdairen historia.

Garai batean broma bat baino gehiago egin izan genuen. Aita Luis Villasantekin harreman handia nuen, eta hura lehengo estilo zaharreko frantziskanoa zen. Torrealdairekin egoten nintzenean esan ohi nion: “-Jo, zeinek sinestu behar dik hi eta Luis Villasantek etxe bereko, edo aita beraren semeak zarenenik?” Izan ere, bat, beti pintxo-pintxo, dotore. Elegantea, txukuna eta guapoa. Beste, aldiz, elegantziari gutxi erreparatzen ziona!

Torrealdai, Joseba Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi.... Komando frantziskanoa zen guretzat”.

egun, unibertsitatetik datorren jendea preparazioz askoz hobeto preparatuta dator, baina beste helmuga batzuekin dator, ordea. Gauzak beste hoztasun batekin ikusten dituela esango nuke.

Gaur egunean oraindik, euskal kazetaritzaren artean badago euskararen militantzia baina, geroz eta gutxiago, zoritxarrez. Militantismo horretatik mundu praktikora pasa da jendea. Zein da hobe? Auskalo...

Nik Herri Irratian 22 urte erretituen, eta oso gustura gainera, ez daukat saltzeko. Gero, beste 23 urte inguru egin nituen EiTbko beste lanbideetan. Irratiaren prozesu osoa ezagutzeko

aukera izan dut, beraz. Ez dago gaizki hori ere. Horrela pentsatzen dut behintzat.

Nola gogoratzen duzu irratitik telebistarako jauzia?

Hasteko, zein mundu diferente diren telebista eta irratia. Lehen aldiz telebista saio bat egitera ilusio handiz joan nintzen. Telebista gutxi ikusten nuen artean eta, bide batez, ikastera joan nintzen. Irakurrita nengoen telebistan gutxi hitz egin eta irudia ikusten utzi behar zaiola teleikusleari. Baina zer ikusi behar genuen! Adibidez, 1966an eman genuen pilota partida hartan txuri-beltzean, argi gutxirekin, pilotarik ez genuen ikusten komentatzen ari ginenok ere!

Kritikak izan ziren pilota ikusten ez zelako, baina hartan gelditu zen. A, eta enpresek ordaindu egin zioten TVEri partida zuzenean ematearren. Gero, Euskal Telebistara joan nintzenean jakin nuen pilota ondo samar ikusteko 1.600 lux edo behar omen zela pilotalekuan, txukun emititzeko behintzat. Atano III pilotalekuak –garai hartan Anoeta– izango zituen gehienez ere 300 lux.

Telebistan jende asko behar da lanerako. TVEko lehen esperientzia hartan 80 lagun zebiltzala esan zidaten. Gaur egun Euskal Telebistan pentsatzen dut 15 bat lagun arituko direla pilota



partidatan, eta hala ere asko dela iruditzen zaigu... Eta pentsa horietatik hamairu, gutxienez, teknikoak izango direla. Beraz, bi hamairuren kontra.

1975ean Loiolan ari nintzela bilera batera deitu ninduten Bilbora, astean behin programa bat egiten lagunduko al nien proposatuz. *Euskalerrria* izena jartzea erabakita zeukaten. Ez nuen esperantza handirik, garai hartan gauzak zeuden bezala ikusita. Bestalde, programa bera magazin modukoa zen, atenporala, informazio kutsurik gabea, bitartekorik gabe.

Hasiera batean oso programa juxtua zen, eta tartean haurrentzako atala sartzea erabaki genuen, Pinpilipauxa izenekoa. Oso harrera ona izan zuen horrek. Franco gaixorik zegoen, eta lehenengo programa 1975eko urriaren 20an emititu zen, diktadorea hil baino hilabete lehenago, justu. Lehen emisiotik aurrera ostegunero emititzen genuen, arratsaldeko zazpiak aldean.

Oztopo asko izan genuen, bai. Bilbon egiten genuen, baina Madrilen grabatzen zen emankizuna. Gaiak aldeztatik aurkeztu behar izaten genituen, normala denez garai hartako telebista batean. Baina zentsoreak, arazorik ikusiz gero, “-Atrás, atrás”, agintzen ziguten eta orduan ediziorik ez zegoenez, berriro hasieratik ekin behar izaten genion progra-

maren grabaketari. Behin batean birritan bota ziguten programa atzera. Eta susmo txarra hartuta baikeunden, orduko Bizkaiko Delegado de Información y Turismo zegoen Luis Martínez Gernikaregana joan ginen zuzenean, solairu berean zuen despatsua eta. Oso gizon hurbila zen Gernika jauna, eta ea zer gertatzen zen galdetu nion. Arazoa zen gure artean zegoela komisarioa, euskaldun fina eta jatorra hala ere, eta komisarioa gainera. Zer nahi duzu?

Donostiako Delegado de Información y Turismo delakoa Fernando Claveria zen, ultra-ultra horietakoa. Semea ere hala-



Izenak



Ramon Labaien

“Bere aita ezagutu nuen lehenengo, Antonio Mari Labaien. Dozena erdi bat elkarrizketa egin nizkion bere etxean. Gozamina zen harekin berriketaldia izatea, argia, sinpatikoa eta hiztun ona baitzen.

Kultura Sailburu izan zenean, eta ETBren hasierako garai hartan harreman asko izan nuen Ramonekin gero. Ramon azkarra eta ikaragarri argiada. ETB sortu zenean, aurreproiektuaren aurrekontua ez dakit hirurogeita hamar edo laurogei milioi pezetakoa omen zen; eta “-Behin hori onartuta ea zeinek egiten duen atzera. 70 orain eta gero 200 izango dira. Ea nork botatzen duen proiektu hori atzera?”, esaten zuen. Ikaragarri argia izan da, eta bista luzeakoa”. Zor handia zaio Labaieni, baina nik bereziki handia diot. Nire alde apostua egin baitzuen behin baino gehiagotan, eta politikoek ez dute horrela jokatzeko ohiturarik normalean”.

Jardun profesionala telebistan



TVE 1965-1966

Hilario Azkarate eta Luziano Juaristi Atano X.ren arteko pilota partidatan zuzeneko esatari TVE-n, Antonilin Garciarekin lehenengo urtean, eta Guillermo Fernandez lagun zuela bigarrean.

1975-1983

Telebistaren lehenengo harremanak Bilboko RTVE n izan zituen, 1975eko irailean hasi eta 1983ko martxoaren azkenera arte. Eta euskarazko lehenengo telesaioa, Euskalerrria, 1975eko urriaren 20an emititu zen lehenengo aldiz. Hala ere, ordu-rako, 1983ko apirilaren 12an, Loiolako Herri Irratia eta RTVE utzi eta Euskal Telebistara joan zen, oposizioz, asteburuetako albiste eta kirol eta kultura saioetako erredakzio-buru mailan.

ETB

■ 1983ko apiriletik 1985eko irailera, Euskal Telebistako asteburu-erretoretako informazio zerbitzu-erretoretako arduradun eta kirol-erretoretako zuzenda-



koxea zuen. Pentsa, SEAT 600 batean bonba bat manipulatzeko ari zela lehertu eta eskua galdu zuen. Horregatik alde egin zuten Madrilera. Gure taldean zegoen komisarioa gizon horren konfiantzako gizona zen, jakina.

Borroka eta istilu asko izan genuen, eta, hala ere, 1975ean hasi eta 1978ra arte iraun zuen *Euskalerrria* telesaioak. Gero, zuzendari berria iritsi zenean *Al fondo, el hombre* elkarrizketa programa eskaini zidaten. Eta aste batean euskaraz eta hurrengoan gaztelaniaz egiten genuen. Niri euskarazko egokitu zitzaidan. 1980ko Errege egunez Bertsolarien Txapelketa nagusia amaitu zenean, ordu erdiko erreportajea egin genuen. Hala ere, handik gutxira, 1983ko martxoan, Telenorte

(TVE) utzi nuen ETBn parte hartzeko. Eta euskarazko atala erabat kendu zuten, ez dakit zergatik.

Orain, berriz, Telenorten informatiboaren laburpena egiten dute eguerditan, baina nahiko motela, oso oker ez banago.

TVE utzita askoz ibilbide luzeagoa egin zenuen Euskal Irrati Telebistan, zeregin ezberdinetan...

ETBren historia oso laburra, baina luzea da. Hanburgora talde bat bidaltzeko aukera egin zutenean, lehenengo zazpi bileratan izan nintzen. Azken bileran, nahiz eta lehenengoan egin behar nuen, galdetu nien ea zertarako nahi ninduten, zertara gonbidatzen ninduten ni bilera haietara. Esan zidaten Hanburgon ikastaroa egin behar zutela eta hara joatea nahi zutela ni ere. Zein baldintzatan joango nintzen galdetu nien eta ikastaroa, bidaia eta hango mantenua ordainduko zidatela erantzun zidaten. Nik, ordea, familia nuen —emaztea eta seme bi—, eta niretzat baldintza horiek onartezinak ziren. Bileratik altxa eta alde egin nuen. Atzetik Amatiño eta Ramon Labaien etorri zitzaizkidan eta lasaitzeko eskatu zidaten, Hanburgora joateko presta nendila erregutuz. Hilabetean irabazten nuen soldataz galdetu zidaten eta Ramon Labaienek Hanburgora joateko prestatzeko

esan zidan, hurrengo goizean hots egingo zidala-eta. Nire baldintzak onartzen zituela eta baiezkoa eman zidan hurrengo goizean. Halaxe, Herri Irratiko zuzendari eta lagunetatik agurtu nintzen. Egia esan Juan Lekuona oso ondo portatu zen nirekin, baina etxera iristean, Josu Zubiaur orduko lehen zuzendari nagusiari hots egiteko abisua neukan. Labaienek zer agindu zidan bazekiela bai, baina bere gainetik ez nintzela hala pasako esan zidan. Halaxe, Labaien jaunari deitu nion nirekin ahazteko eskatuz. Ordurako Japoniara eta Filipinetara joateko bidaia antolatu nuen. Emaztea ere mareatu nuen eta azkenean, Joseba semearekin joan nintzen.

Hanburgoko proiektua baina hurbilago zegoen Instituto de RTVE eskola, eta ez nuen oso ondo ulertzen bidaiaren arrazoia ere. Instituto hori gainera oso ondo antolatuta zegoen. Baina “-iCon España nada!”, esan omen zuen norbaitek, eta kitto!...

Denbora igaro zen eta ez nengoen batere konbentziturta, baina Luis Iriondo zen ETBko zuzendari, eta Amatiño informatiboetako arduradun, eta behin eta berriz erregutu zidaten presenta nendila, eta azkenean osposioztara aurkeztu nintzen. 1983ko apirilean sartu nintzen ETBn, aseturuetako informatiboetako



erredaktoreburu eta kiroletako zuzendari lanetan. Lantalde txikia ginen, baina ondo konponzen ginena, eta makina lan egin genuen: Xabier Zaldua, Maribel Aizarna, Elene Lizarralde, Pedro Mari Goikoetxea, Edorta Arana... Larunbat eta igandeko informatiboak egiten genituen, kirol albisteak landu eta ostiralero *Plaza berri* kultur albistegia.

Loiolan bezala, telebistan ere lan-gile eta nagusi aritu zinen...

1984an lan hitzarmena negoziatzen hasi ziren eta ostiralero-ostiralero lanuzteak egiten ziren. Aseturuetako taldea ez zuten aintzakotzat hartzen, ordea, hitzarmen horretan, eta gu, ostiralero bilerara joaten ginen lauretara-ko. Lasai antzera zeuden gehie-

Jardun profesionala telebistan

ri eta aurkezle. Plaza Berri eta Hitz eta Pitz tele-saioak bere ardurapean egin ziren.

■ 1985eko irailean, ETBko zuzendari eta programazioburu izendatu zuen EITBko Administrazio Kontseiluak, Jose M^a Gorordo zuzendari nagusi zela.

■ 1987ko udal hauteskundeen ostean, Eusko Irratia S.A. - Radio Vitoria S.A. ko zuzendari eta koordinatzaile nagusi izendatua izan zen, 1996 arte.

■ 1988ko urtarriletik 1996ra Radio Euskadi zuzendari, zuzendari-koordinatzaile izateaz gainera.

■ 1988an Ondo Media martxan jarri zuen Ganguren, Miramon eta Estibalitzen antenak jarrita.

■ 1996ko udaberrian dimisio osoa aurkeztu ondoren zuzendari nagusiari, Euskal Telebistara itzuli zen berriro, Miramon - Donostian lan eginaz. Eta, bestek beste, Aire, aire magazina zuzendu eta aurkeztu zuen, Ainhoa Goikoetxearekin, Berriketa gutxi solasaldiak zuzendu eta koordinatu, Esanak esan elkarriketak zuzendu eta egin, eta Telesaio bereziak deituen arduradun izan zen, 2003ko uztailaren 21ean jubilatua izan zen arte.

Jarduna idazle modura

[Askoren artean]

■ Gipuzkoako Oargi-k antolatu ohi zuen Agora saria irabazi zuen 1955ean, Noiz, amatxo? ipuinaren bidez. Eleberrirri laborra izena eman zitoten.

■ Ehunka artikulu (Zeruko Argia, Goiz-Argi, Olatz, Deia) eta gidoi idatzi zuen irratirako eta telebistarako, berrogeita lau urte luzetan zehar.

■ Joxe Lizaso: nere aldi-ko kronika. (Auspoa 275). Ostiraleko Kronika I - Inozentzio Olea (Auspoa 278). Ostiraleko Kronika II - Inozentzio Olea (Auspoa 279). Segi Mugartegi (Auspoa 282).

■ Estibalitz Robles-Arangiz Estitxu. Bidegileak 2001 (Eusko Jaur-laritzako Kultura saila).

■ Iñaki Eizmendi Basarri. Bidegileak 2002. (Eusko Jaur-laritzako kultura saila).

■ Teodoro Godofredo Hernandorena. Bidegileak 2004 (Eusko Jaur-laritzako kultura saila).

■ Canción Popular Vasca: Euskal Kanta Berria. Ez Dok Amairu 2002 (Euskalerrria temática. Etor-Ostoa, 1999).

■ Azpeitiko zezen-plazak 100 urte. Herri kirol eta ospakizunak (Udalaren eskariz).

■ Banka Hiztegia.

nak, baina guk, gauerako magazina prestatu behar izaten genuen. Egoera horretan, gure lantaldea estu zebilen. Hiruzpalau hilabete eman genituen horrela.

1985eko irailean Andoni Areizaga zuzendari nagusia lanpostutik kendu zuten eta informatiboetako buru Amatiño ere bai. Administrazio Kontseiluan zegoen Jose Maria Gorordo ipini zuten zuzendari nagusi. Eta ostiraleko programa grabatzen ari girela, hots egin zidan nirekin hitz egin nahi zuela esanez.

ETBko zuzendari izateko proposamena egin zidan aho betean. Greba egoera hartan ez nuen neure burua inola ere ikusten ETBko zuzendari, eta hurrengo astelehenean ezezkoarekin joan nintzaion. Gorordok, ordea, eskaintza onartzeko eskatu zidan. Organigrama aldatuko zuela, kudeatzailea eta pertsonalburu ardurak sortuz. Laguntasuna izango nuela eta hartzeko lanpostua, erraz beteko nuela-eta hango zeregina. Orduan, behartuta hartu nuen zuzendari postua, baina gaizki pasatuta.

Zuzendari postua halabeharrez hartu, eta handik bi egunera programazioburu ere izateko agindua eman zidan. Eta azkenean biak hartu behar izan nituen, biak gaizki egiteko!

Esperientzia gogorra izan zen hura, bai, oso gogorra. Garai hartan borroka horretan sartu nin-

tzelako lagun batek bidali zidan telegrama oso gogoan daukat: "Zorionak, hik dauzkak barrabillak, hik!", esan zidan. Egia da, laguntza handia izan nuen, baina oso gogorra izan zen.

Gorordok, bestalde, oso argi jokatu zuen huelga arazoa hartan amaitzeko. Greba hartako supistaile eta eragileei telebistako aginte postuak proposatu zizkien, eta greba astebetara amaitu zen.

Josu Ortuondo iritsi zen gero agintaldi berriko zuzendari nagusi, eta Miramonen ETBko delegatu izateko eskaintza egin zidan; edota bestela, Eusko Irratia S.A. - Radio Vitoria S.A.ko zuzendari koordinatzaile izatekoa. Bigarren hori onartu nuen, eta bederatzita pasa nituen egunero Bilbora joanez, aldi berean Radio Euskadiko zuzendari bainintzen. Bilbaino samarra naizela esan izan didate, baina Bilboko lantaldearekin oso ondo konpondu nintzen beti, egia esateko. Jende irekia da oso, eta profesionalki, Bilbo niretzat oso inportantea izan da.

Urteak igaro eta 70eko hamarkada gogoratuz klandestinitatean lan egitearen xarma aipatu izan duzu, zera gaineratuz: "Askoz politagoa da ezkutuan, kontroletik ihesi lan egitea"...

Hori esatea ere utopiko samarra da ordea, orduan sufritzen zelako. Baina bai, bere xarma bazuen. Adibidez, Txiki eta Otaegi fusila-

tu zituztenean Nuarbera joan nahi izan nuen, hilerrira. Lanera baino gehiago, bidean nola hartuko ninduten ikustera joan nintzen. Baina Urrestillara iritsi baino lehenago geratu ninduten Gogardia Zibilek, geure jaiotetxearen pare-parean. Ez zidaten joaten utzi. Jaiotetxetik gora berriro ere saiatu nintzen, baina alferrik. Jende horrekin kontuz ibili beharra zegoen baina, joko hori orain ikusita, polita zen. Eibarko 1962ko grebatan Maltzagatik, Arratetik edota Agiñatik herrira sartzen saiatu ginen, baina ezinezkoa zen.

Bertso jaialdian gaiak euskaraz eta erdaraz eraman behar izaten ziren Delegación de Información y Turismora. Eta *No emitible* esaten zuten hainbat gairen inguruan. Orduan, hala-holako gai ilun samarrak eta esaerak erabiltzen hasi ginen: “Odolkiak ordainetan”, “Bista ona eta ikusi ezin”... Joke ikaragarria ematen zuen horrek jaialdian. Polita zen, momentu horretan bizitzeko baino orain gogoratzeko politagoa, noski.

“1976-2006 hautu baten kronika” DVDan zera diozu: “-Ni bizi naitzen arte euskara ez da hilko..., baina, ño, ez dakit e!, nahiago oker banengo”...

Kezka hori on Manuel Lekuonak sartu zidan barrenean. Azken urteotan ugaldtu behintzat, ugaldtu da euskaldungoa. Zarautzen,

edota Azpeitian euskara asko hitz egiten da. Baina Bizkaiko ikastolen Ibilaldian, aldiz, trenetan joan ginen anaia eta biok. Geltokitik irten eta herri aldera gindoazela jende asko kastellanoz hitz egiten ari zela ohartu nintzen. Horrelako egun batean euskaraz hitz egin behar ez bada, noiz hitz egingo dugu ba! Manuel Lekuonak esan zidanarekin gogoratzen naiz horrelakoetan.

Esaldi horretan ere aipatzen dut nahiago nukeela oker banengo. Garbi daukat hori. Maiz esaten dugu gu bizi garen artean euskara ez dela hilko. Gure uimekin ere iraungo duela, baina zer izango ote da etorkizunean, hemendik ehun urtera? Beharbada askoz euskaldun gehiago izango da.



Jarduna idazle modura

Aurrezki Kutxa eta Bankoetarako hiztegia 1976.

■ Julen Lekuona Berasategi – Bidegileak 2006 (E.J. Kultura saila, 2006).

■ Basarri I Bat-batean – Basarriren bat-bateko saio asko + Cdr. (Auspoa 296 – 2006ko otsaila).

■ Torreako Dama – Lourdes Iriondo Mujika. Bidegileak, 2006 – E.J. Kultura saila 2006.

■ Joxe Mari Aranalde Olaondo – Gazteluko kabileroa - Bidegileak 2006 – E.J. Kultura saila.

■ Urrestillako Trikitixa: Auntxa eta Iturbidetarrrak, Trikitixa Zaleen elkarte.

■ Mattin eta Xalbador (Auspoa 301), Antonio Zavalarekin elkarlanean egin eta Urepeleko elizan aurkeztua.

■ Xanpun bertsularia (Auspoa 302), Xanpunen bertsu-bilduma.

■ Lourdes Iriondo-Antologia diskoan elkarlana, Xabier Lete eta Donostiako Elkarlanean diskoetxearekin, 2006.

■ Mattin Treku, Ahetzeko urretxindorra – Bidegileak 2008.

■ Migel Arozamena – Gipuzkoako nafar bertsularia – Bidegileak 2008.

Rikardo Arregi

“Bere hiletan izan nintzen, eta Loiolan eman genuen haren heriotza-ren albistea. 1962 urtean Juan Goikoetxea jesuitak deitu zidan, astero biltzen zela euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko talde batekin Azpeitian. Lan hori hartzeko eskatu zidan, eta hiru urtez alfabetatze lanetan aritu ginen. Orduan R. Arregik Zeruko Argian idazten zituen idazlanak irakurtzeko ohitura nuen, eta horren inguruan jardun ginen behin baino gehiagotan berriketan. Mirespen handia nion gazte argi hari, eta bere hileta egunean, Manuel Lekuonarekin hitz egiteko aukera izan nuen lehenengo aldiz”.

Martin Ugalde

“Ameriketatik etorri zenean ezagutu nuen. Ordurako irakurritan neukan “Unamuno y el vascuence” liburua. Eta Euskal Kontseilu Orokorrean ezagutu nuen gero. TVEko Y al fondo el hombre elkarrizketa horietako bat Martin Ugalderekin egin nuen. Bere liburu gehienak badituzte. Ameriketatik etortzen diren euskaldun gehienak bezalaxe, gizon dotore eta elegantea zen. Ez janzkera aldetik bakarrik, presentzia handiko gizona zen, buru argikoa, maigarria”



Euskaraz kalitatea baino kanti-tate gehiago dagoela uste dut, gauza asko galdu baita. Ordea, hizkuntza bizi batean beti galdu behar da zerbait, beste bat irabazteko. *Esan zaitut, ikusi dizut...*, horrelakoak ugalduta dira. Hala ere, nik nahiago hori gure artean gaztelera baino. Gramatika asko aldatuko da, baina berdin dio, hizkuntza bizirik badago aldaketak izango dira...

Gatozen 2008ra. Auspoa edota Bidegileak biografia bilduma aipatu behar ditugu. Ez zara besterik gabe egonean egoteko jai!

Jose Luis Lizundia eta biak kinto berekoak gara. *Esanak esan* telebista saioan laster jubilatuko ginelan aipatu nion eta zera erantzun zidan, “-Hi, txo, jubilatuta bai baina erretiratu inoiz pex”. Orain egiten ari naizen lanetan gozatzeko ari naiz. Askotan lan gehiegi hartzen dut, egia esan. Askoren artean egin dugun Mixel Lekuonaren biografia batekin ari

naiz buru-bihotz. Eguberrietarako atera nahi nuen, baina ezin izan dugu. Bestalde, beste hirulau lan badauzkat eskuartean azkar hasi nahiko nituzkeenak. Egunero ordu asko pasatzen dut idazten, 7-8 ordu bai. Baina niri hori ez zait lana iruditzen. Jubilatzen nintzenerako utzitako lanak dira horiek, hainbat libururen irakurketa bezalaxe.

Bidegileak lanari dagokionez, Mattin eta Arozamena prest ditut. Noiz argitaratuko diren? Auskalo! Idatzi behar duenak denbora gutxi izaten du eta argitaratzen duenak nahi duen adina. Alderantziz beharko luke, ezta?

Auspoa taldeko biltze lanak, Basarriren artikulu guztien bilduma hasita daukat, ordenatzeke dagoen Antonio Zavalaren artxibo guztia...

Eta zure biografia noizko?

Titulua ipinita daukat, “Kontaidazu, aitona”. Nire bilobari egin-dako kontakizuna izango da. Hamar urte egin eta hamaikara doa, eta txikitari ipuin asko eskatzen zidan, eta baita nik kontatu ere: *Azpeiti aldeko Altxaporrurenak, Hermoxorenak...* Gure umetako *Sacamantecasenak* edota *Oto eta Pototorenak*. *Kontaidazu*, esanez etortzen zitzaidan maiz eta hortik dator nire izenburua. Auskalo noizko, baina buruan daukat eta zenbait gauza eginda ere bai...

Urrestilan jaioa
Larrañaga etxean,
Azpeitian hazia
euskal baratzean;
Loiolan duzu hezia,
Herri Irratian,
kazetari bizia
mintzo jatorrean.
Orain hartuko duzun
esker berezia,
hori behintzat bada, bai
ongi merezia!



AZPEITIKO UDALA





Joxe Mari OTERMIN

ETBko programa zuzendaria

Bertsolaritza, trikitixa eta kantagintza

I973ko udaminean ezagutu nuen Joxe Mari. Abuztuko lehen egunak ziren. Zarautzen eguzkia gogotik hartu eta, udatiarren kolorez etorri zen bere despatxura. Itzal handiko profesionala zen. Asko estimatzen zituen Iriondok bertsolariak, kantariak eta trikitilariak; eta estimu handitan zeukaten hauek Loiolako Herri Irratian ziharduen esataria. Elkarrekiko estimua zen hura. Izan ere, ordu askokoa izan ohi zen Iriondoren lan-eguna. Goizeko bederatziak inguruan ikusiko zenuen irratiko eskailera apurrak jaisiten, eta ilunabarrean utziko zuen bere despatxua. Ilunabarrean edo..., beranduko batean. Bien bitartean, telefono-dei asko hartu, elkarriketak grabatu, testuak idatzi, Renault 12a hartu eta batera edo bestera mugitu... Neka ezina zen. Batek baino gehiagok aitortu du bere ahalegina funtsezkoa izan zela bertsolaritza-trikitirixa-kantagintzan. Areago. Hiru esparru horiek ez ziren izango ezagutu ditugun bezala, tartean Iriondoren bultzada egon izan ez balitz. Punta-puntakoak bezala bigarren mailakoak, gazteak bezala adinean aurrera zihoazenak, guztiak hartzen zituen Loiolako estudio luzexka hartan. Kristalaz bestalde-

tik Jose Mari, grabaketaren arduradun gisa. Zintak artxibatzea ere bere zeregina izan ohi zen. Ez da behar beste aintzakotzat hartu bere ekarpena.

Mikrofono aurrean maisu zelako ibili ohi zen era guztietako jaialdiak aurkezten, *Txanton Piperr*i opera bezala gai-jartzaile bertsolariekin. Etorri ederrekoa zen, tranpaldolan, eszenategian eta irratitudioetan. Idazten ere trebea zen oso, eta idazmakina dantzatzeko ezagutu dudana azkarrena. Esku onekoa zen arazoak konpontzeko orduan ere. Temple onekoa, alegia; gutxitan zakartzen zena. Orduan ere izaten baitziren sesioak eta xextrak.

Maixu handia izan genuen aldamenean bederatzi-hamar urtez. Gu, ikasle eskasak, orde... Lerro hauen bitartez bat egin nahi dut Atxumarriko baserrian hazi zen adiskideari egiten zaion omenaldian. Bide luzea egin duelako, eta emankorra euskalgintzaren esparruan.

Aupa, tokai!



Itziar SAGARZAZU

Loiola Irratia

Garai hartan dena zegoen egiteko

Loiola Irratiko garai hura izugarri polita izan zen, dena zegoen egiteko! Herria zain zegoen, euskararen eta euskal kulturaren aldeko beharra bazegoen orduan. Ez zen batere erraza izan, zailtasun handiak baitziren.

Jose Mari Iriondo, Karmelo Otaegi eta ni neu izan ginen Loiola Irratiko lehen urte haie-tako oinarria. Lan eta lan eginez, esperientzia handia pilatu genuen eta esperientziak asko laguntzen du. Jose Mari Iriondoren parte hartzea funtsezkoa da. Irratigintzan ezinbestean, eta euskal kulturgintzan zer esanik ez.

Irratigintzan sei orduko lan hitzamenaren genuen, baina bataz beste, zortzi-bederatzi sartzen genituen, ia-ia egunero lan eginez. Gogoa genuen sobera. "Hauurrera atera egin behar dugu" esaldian laburbiltzen da energia hura guztia.

Jose Mari Iriondo azkarra eta argia da. Lehen urte haietan idazten zituen *Andre-gizonak* esketx motz haiek oso politikak ziren, arrakasta handia izan zuten. Iriondo aipatzean gogoratzen dut albisteak euskaratzeko garaian erraztasun ikaragarria zuela. Entzulego zabala biltzen zuten programak jarri zituen martxan. Askoren artean, baserritarrei zuzenduriko *Erein erein azia* oso

ona zen, zer esanik ez *Beti Jai* magazina. Gaixo eta ezinean zeudenei begira martxan jarri zuen *Ezbeharrean zorion* programa. Azken horren gidarritza neuk hartu nuen gero. Entzulegoak deiak eginez eta mezuak bidaltzen parte hartzen zuen.

Garai hartan, etxean bakarrik egiten zen euskaraz. Nire adinekoak ez zeuden jendaurrean euskaraz hitz egitera ohituta. Nire jaioterrian erdaraz asko egiten zen, orduan. Neronek irakurtzea oso gogoko nuen, erdaraz eta euskaraz. Bestalde, irratia oso atsegina egiten zitzaidan. Beraz, irakurzaletasuna eta irratia gustuko izatea oso garrantzitsua izan ziren Loiola Irratian lanean hasteko probak gairatzen ziren.

1960ko lehen urte haietan, herria esnatzen hasi zen. Herria ez zegoen lotan, baizik eta beldurra zegoen jendeak asko sufritu zuen eta. Garai haietan denuntzia piloala jasotzen genuen. Adibide bat jartzearen, errosarioa erreztatzen zenean Azpeitiko Jose Antonio Agirreraren aldeko aipamena egiten genuen aldiro, denuntzia jasotzen genuen. Euskadiko lehendakari ohiaren aldeko mezutzat hartzen zuten, eta guk aipatzen genuen gizon hura azpeitiarra zen! Zenbat Jose Antonio Agirre egongo ote zen orduan eta orain Euskal Herrian...



Mikel ATXAGA

Idazle eta kazetaria

Lapiko guztietako burruntzalia

Jose Mari Iriondok Urolaaldean entzun nuen esaera hura gogorarazten dit: lapiko guztietako burruntzalia. Loiola Irratian zebilen ezagutu nuenean. Eta Lurdes Iriondo bere lehengusu txikiak Aizarnan eman zuen kantaldiaren egunetik dut lagun, lagun leial eta eskuzabala.

Ez ditut Jose Marik egin dituen lan ugariak eta izan dituen erantzukizun eta kargu handiak aipatuko. Bere kazetari senak harritu nau beti: nolako oharmena, ikusmina, jakinmina dituen ingurumarian gertatzen diren gauzarik xeheena ere jasotzeko eta nolako trebezia duen gero entzuleei kontatzeko.

Baina Jose Mari Iriondo ez da euskarazko irriariaren eta telebistaren aitzindarietako bat bakarrik izan. Euskal kulturaren bultzatzaile eta suspertzzaile izan da. Bertsolari lehiaketa asko antolatu zuen Loiola Irratik, ezkutuko bertsolariak plazaratzeko eta bertsotarako gogoia zuten gazteak ezagutarazteko. Euskal kantagintzaren eragile izan zen, “Ez Dok Amairu” taldearen sortzaileakoa, kantaldi askoren antolatzaile eta aur-

kezle. Eta bertsolaritza ez ezik, euskal kantagintza ere berak eraman zuen irratira. Ahal zuen neurrian, Etxepareren nahia betetzea lortu zuen Jose Marik: “Heuskara, ialgi adi plazara”.

Iriondori badiogu beste zor bat ere, ordea. Ez ditu bertsolari, kantari, artista eta idazle gazteak bakarrik bultzatu. Belaunaldien arteko lotura egiten ere saiatu da. Gerra eta diktadura luzea tarteko lehengo berririk gabe haziak izan gara. Mundua gurekin hasi balitz bezala jokatu izan dugu. Baina oker geunden. Izan zirelako garela, erakutsi nahi izan digu Jose Marik, lehengo jende interesgarri asko elkarrizketatuz. Ez da berriketako Jose Marik horretan ere egin duen zubigintza.

Lanerako gogoz eta sasoian dago oraindik Jose Mari Iriondo. Lapiko batzuetako burruntzali izan daiteke oraindik. Ondo baino hobeto merezia duen omenaldi hau, beraz, lanean gogotsu jarraitzeko eta burruntzalia astintzeko bixigarri eta pozgarri suerta bekio.



Odile KRUTZETA

Euskadi Irratiko zuzendaria

Euskarazko irratigintzaren urrezko ahotsa

Jose Mari Iriondo plazagizona da, argia eta gizalegekoa. Haren hitz jario dotoreak badaki nola iritsi entzulearen bihotz-gogoetara. Izan ere, daukanari dario eta ume-umetatik datozkio Jose Mariri komunikaziorako etorria eta bokazioa. Hain juxtu, jaiotetxera Telefunden handi bat ekarri zioten une beretik. Irrati aparatu haren jardun magikoak liluratuta utzi zuen hamar urteko mutil koxkorra. Ilunabar hartako gozamen, bizitza profesional oso baten iparrorratza bilakatu zitzaion berari; eta hala suertez, gozaldi ederrak ekarri dizkigu hurrengo belau-naldiko irratizaleoi.

Baina irratiko kazetari izateko ahots ederraz gain, beste gaitasun batzuk ere behar dira. Belarri fina esaterako. Solaskideek diotenari arretaz erreparatu behar zaio elkarrizketaren hariari segi eta tira egiten jakiteko. Belarri fina behar da, hizkuntzaren sekretuak ikasi eta haren ñabardurekin jolas egiteko; entzumen landua behar da, kontaktuzuna musikaz girotzeko eta apaintzeko. Irratiz zabaldutako milaka elkarrizketa daude, horretan guztian Jose Mari maixu dela erakutsi dutenak.

Adimen zorrotza ere bai, noski. Inteligentzia. Eta etorkizun-sena. Eguneroko saio, emanaldi edo elkarrizketatxo hori, gerora altxor bilakatuko dela igarri eta jakiteko gaitasuna. Alde horretatik, Jose Mariren biltze eta katalogatze lana benetan oparoa eta bakana da. Urregorria balio duten artistak ikusten eta baloratzen jakin izan du kultura ofizialak baztertutako arloetan.

Baina hau guztia hutsa litzateke bihotzik gabe. Sentibera ez denak ezin du beste inoren barrena hunkitu. Jose Marik berriz, herri-kulturaren taupadak sentiarazi dizkigu bihotz-muinetan. Etxeko sukalde barrenean jaso ditugu bere eskutik Oteizaren teoria estetikoak, Barandiaren aurkikuntza antropologiko eta etnografikoak, *Ez Dok Amairu*-ko kantarien poemak eta askatasun garra-siak, bertsolarien herri-filosofia, umorea eta negarra, trikitixaren alaitasuna, herri kiro-len indarra. Amerikarrak ondo baino hobeto ibili ziren Frank Sinatrari “The Voice”, hau da, Ahotsa, titulua eman ziotenean. Sarrri pentsatu dut euskarazko irratigintzaren ahots dotore eta heldua, gure “The Voice”, gure Ahotsa, Jose Mari Iriondo dela.



ZARAUZKO UDALA

EUSKARA ZERBITZUA



*Kazetaritza jardunetik
euskararen eraginez
Zarauzko herriak esker onez*

21

**XXI. MENDE
HASIERAKO
HIZKUNTZA
POLITIKAREN
OINARRIAK**

*Euskara,
XXI. mendeko
hizkuntza bizia
egunerokoa eta
noranahikoa*

21
euskara

parte hartu!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAIA
Idazkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA**